



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

18 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako 1995eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa, ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duena, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (8. or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua Iruñeko Udalarekiko harreman politikoak arindu ditzan premiatzen duena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Anbulantzia zerbitzuaren emateari buruzko galdera, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egin (10. or.).

—Tuterako Soto de la Mejana zentral hidroelektriko bat kokatzeari buruzko galdera, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egin (10. or.).

—Bazterturiko pertsonak gizarteratzeko proiektuetatik etorritako erabiltzaileendako arretari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin (11. or.).

—Corellako eta Zizur Nagusiko udalerriei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egin (12. or.).

- Iruñerriko hiri garraio publikoaren ezarpenari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).
- Hitzarmen Ekonomikoaren balizko eguneratzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Lurzorua eskuratzeko sozietate misto baten osatzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Estatuan 200.000 lanpostu sortzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Etxebizitza Planaren aurkezpenari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin zerikusia duten zenbait espedienteren aurkezpenari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Osasuna Babesteko Atalburuak kutsaduraren kontrolari buruz egindako ikerketari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- “Korrika 97”ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
- Estatuko aurrekontu-kontusailei eta Itoizko Urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin hartutako konpromezuei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Lindux aldeko ehiztarien arteko istiluei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Urederra, Irati, Anduña, Urrobi eta Aragoa ibaietako zenbait tartetako uraren kalitateari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Leipzig-eko Azokan Foru Komunitatearen pabilioiak izandako kostuari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Nafarroako Hiri Jabetzako Ganbararen kenketari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetzak-hitzarmenari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).
- Lurraldearen antolamenduaz egindako ekimen eta jarduketari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Iruñerriko Hirigintza Arauen prestakuntza bertan behera uzteari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Ehiza hesi eta itxituren kenketari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- D.B.H.ko D ereduko irakasgai amankomunak astean ordu batez gutxitzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (22. or.).
- Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (23. or.).
- Eremu Hezeen inbentarioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- Nafarroako abelbideen babes erregimenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia (26. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendapena (29. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18 artikuluan ezarritakoa betez, Foru Diputazioak, 1996ko abuztuaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, 1995eko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontu Ganbarak txosten bat eman zuen, 1997ko otsailaren 18ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 154 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramalean Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- 1995eko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

(Foru Lege proiektuko 1. artikuluan aipatzen diren agiriak Foru Parlamentari jaun-andreen eskura daude Biltzarreko bulegoetan).

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorra prestatzea eta Kontuak formalizatzea Parlamentuari aurkezteko, horrek eztabaidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onspena eman diezaien, hori guztia foru legeek ezartzen dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110 artikulua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eskutan uzten du Nafarroako Kontu Orokorraren formulazioa, horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsita dituela, Nafarroako Parlamentura igorri beharko direlarik behar duten Foru Lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115 artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1995eko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duela eta Nafarroako 1995eko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 151 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da Foru Lege horri onspena ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsitako Nafarroako 1995eko Kontu Orokorra, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agiritan agertzen da:

I. Tomoa.- Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuen likidazioa, finantzen egoera-orriak eta Txostena. Hona hemen hori osatzen duten agiriak:

– Nafarroako 1995eko Aurrekontu Orokorren likidazioaren laburpena.

– Gastuen Aurrekontuaren likidazioa.

– Dirusarreraren Aurrekontuaren likidazioa.

– Finantzen egoera-orriak eta argibide osagarriak:

- Egoeraren Balantze Orokorra.
- Ekitaldiko emaitzen kontua.
- Fondoaren jatorri eta aplikazioaren egoera-orria.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzearen kontu orokorra.

- Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.
- Kobratu beharreko eskubideak eta ordaindu beharreko betebeharrak, aitzineko ekitaldietatik heldu direnak, nola dauden eta haien bilakaera azaltzen duen egoera-orria.
- Erabilera orokorraren xedea hartu duten jabari publikoko ondasunetan ekitaldiaren barnean eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.
- Hurrengo ekitaldien kargura hartutako konpromezuen egoera-orria.

– Oroit-idazkia.

II eta III. Tomoak.- Nafarroako Parlamentuaren Kontuak, Kontuen Ganbararenak eta Foru Komunitateko Sozietate Publikoenak.

ERASKINA

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuetako likidazioaren xehetasun dokumentuak.

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen egoera orrien xehetasun dokumentuak.

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena, aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena, Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege Proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeak ez du

neurri berezirik jasotzen, beharrak jota, pobrezia egoeran dauden pertsona eta giza-taldeentzat.

Hainbat oztopo gairitu behar dituzten egoera horretan izanik, etxebizitza eskuratzeko funtsezko laguntza ematen dio gizarte-bazterte arriskuari itzuri egiteko ahaleginari, eta laguntza erabakigarria da gizarteratzeko eta giza-duintasunerako.

Hori dela eta, komeni da eskurapen hori ahalbideratzea pertsona horiei laguntza emateko prozesu oso baten barnean. Delako laguntza eta eskuhartzearen ardura iduri du egokiena dela irabazteko asmorik gabeko ongintza-erakundeen esku egon ahal izatea, beti ere, Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako baldintzen barnean.

Abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeak ez du finantzabide kualifikatu bat berariaz jasotzen etxebizitzak erosteko, hortaz, bidezko da Foru Lege horretan aldaketa zenbait egitea ahalmen ekonomiko oso mugatua duten pertsona horiek horrelako etxebizitzak erosi ahal izateko bidea izan dezaten.

Nafarroako Gobernuak bere garaian aztertu zuen Foru Lege proiektua aldaketa egokiak sartzeko. Hori dela eta, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzea proposatzen da, azalduko norainoko eta edukiaren arabera.

1. artikulua. Abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeko 3. artikuluari, beste lerroalde bat eranstean zaio, testu honekin:

“e) Etxebizitza erabilia erostea, Lege honek aurreikusitako kasu berezietan.”

2. artikulua. Abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeari beste artikulua bat eranstean zaio, eduki honekin:

“6. bis artikulua. Etxebizitza erabilia erostea kasu berezietan.

Etxebizitza erabilia erostek jarduketetan honako inguruabar hauek gertatu behar dira:

1. Etxebizitza erabiliak antzinatasun eta ezau-garrien aldetik arauterian xedatutakoa bete behar du.

2. Metro koadro erabilgarriaren prezioa ez dadila babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren edo hurrengo transmisioetarako ezarri den tasarik ekonomikoa baino handiagoa izan.

3. Hartzailen familiako dirusarrera ponderatuak lanbidearteko gutxieneko soldataren halako 1,5 baino txikiagoak izatea.

4. Irabazi asmorik gabeko erakundeek ikuska dezatela erosketa, Nafarroako Gobernuak dagozkion lankidetzaren hitzarmenak izenpetzen baldin baditu haiekin."

3. artikulua. Abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeko 10. artikuluari beste lerroalde bat atxikitzen zaio, honela idatzirik:

"F) Etxebizitza erabilia erosteko kasu berezietan:

a) Erosleak: mailegu kualifikatuak.

b) Mailegu kualifikatuen subsidiazioa, erosleek, lanbidearteko gutxieneko soldataren halako 1,5 baino txikiagoak diren familiako dirusarrera ponderatuak badituzte, etxebizitza 90 metro koadro erabilgarrira iristen ez bada, familia handien kasuak salbuetsiz.

c) Dirulaguntza pertsonalak, aurreko b) atalak aipatu kasuetan."

Azken Xedapena

Foru Lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, Nafarroako Gobernuak Legeko 2. artikuluan aipatzen den erregelamenduzko garrantzia gauzatu du.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Parlamentua Elx-eko Dama behin-behinean lagatzeko eskaerari atxiki dakion aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua ezartzen duenaren babesean, ondorengo mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran bidera dadin.

Datorren abuztuaren 4an 100 urte bete dira Elx-eko Dama aurkitu zenetik. Hori dela eta, hiri erromatarra eratu zenetik bi milagarren urtea betetzen delarik, Elx-eko Udalak Kultura Ministerioari eskatu zion denboraldi batez soin iberiar hori utz ziezaion. Horrela Elx-eko herriak obra honen jatorrizko alea, normalean Museo Arqueológico Nacional-ean dagoena, ikusten ahalko zuen.

Udalaren eskaeraren alde Valentziako Kultur Kontseilua, Valentziako Gorteak eta Diputatuen Kongresua, udal anitz eta kulturarekin zerikusirik duten Espainia guztiko erakunde, elkarte eta partikularrak jarri dira.

Horregatik guztiarengatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki hau hartu du:

1.- Nafarroako Parlamentua bat dator Elx-eko Dama denboraldi batez uzteko eskaerarekin.

2.- Erabaki hau Kultura Ministerioari eta Elx-eko Udalari jakinaraziko zaio.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duena

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ibai-ekosistemak zaintzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat bidaltzera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Biltzarreko Erregelamenduko 193. artikulua eta horrekin loturiko ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroak badu garrantzizko ibai sare emaritsua. Ibaion artean azpimarra ditzakegu Ezka, Zaraitzu, Irati, Erro, Zidakos, Aragoa, Ultzama, Arakil, Salado, Ubagua, Arga, Urederra, Ega, Ebro, Baztan Bidasoa, Larraun, Araxes, Urumea ... etab.

Administrazio publikoek eta haien erakundeek zatika eta koordinaziorik gabe tratatu dituzte orain arte ibaiak, sektorean sektoreko planen bidez (hidrologikoak, saneamendukoak, arrantzakoak, eta abar direla).

Beste alde batetik, bai partikularrek, bai erakunde publikoek hainbat jarduketak burutu dituzte eta burutzen ari dira ibaietan edo ibai inguruetan: dragatzeak, ibaiak bideratzea, defentsak, harribetaketak, isurketak, urtegiak, kirolguneak, arrantza, zentral hidroelektrikoak, arrain haztegiak, herrilak, landaredia kentzea eta beste.

Horiek guztiak eredu eta antolatzeke ez dute ibai natura-jarrai eta linealtzat hartu, alegia, balio natural nabarmenak dituzten gero (fauna, flora, landaredia eta habitatak) babestu beharrezkotzat jo, eraginkortasunaren barruan uztartu ahal izateko funtsezko ingurugiro babesa eta giza-jarduketak egin ahal izatea, segurtasun eta osasun

publikoari buruzkoak batik bat, interes orokor edo publikokotzat jotzen direnak.

Europako Batasunak 1992an habitatak kontserbatzeari buruz eman zuen Jarraibideak haxe xedatu du: Batasuneko estatu kideek ahalegina egin behar dutela basa fauna eta florarendako lehen mailako garrantzia duten paisaiaren elementuen kudeaketa lurraldearen antolamendu eta garapen politikaren baitan burutzeko.

Aipatu jarraibideak hurrengoak aipatzen ditu, hitzez hitz: "Duten egitura jarraia eta lineala dela eta (ibaiak eta ibaiertzak) edota lotune paperarengatik (urrael edota ibarbasoak), ezinbesteko elementu dira basa espezieen migrazio, geografi banaketa eta truketze genetikorako".

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Legeak, bere hamaikagarren xedapen gehigarrian, urte beteko epea ezarri zuen Nafarroako Gobernuak Parlamentu honi bidal ziezaion berezko habitatei buruzko Foru Lege proiektu bat, Nafarroako ibaietako flora eta ekosistemen gainean. Epe hori 1994ko apirilean bukatu zen.

Epea aspaldi bukatu bada ere, Nafarroako Parlamentuak ez du aipatu proiektua jaso oraindik.

Hori horrela, Mozio hau aurkezten dugu, Biltzarrak aztertu, eztabaidatu eta onar dezan berezko habitatei buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako ibaietako flora eta ekosistemen gainekoa. Horretarako, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari eskatzen diogu hurrengo erabakia har dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du erabaki hau onetsi eta lau hilabeteko epean, ibai ekosistemak kontserbatu eta kudeatzeari buruzko Foru Lege proiektua bidal dezan, Biltzarrak eztabaidatzeko.

Foru Lege proiektuak hurrengoak ukituko ditu, ikuspuntu baterabiltzaileekin: Nafarroako ibaiak, ibaiertzak, ibarbasoak eta basa flora eta faunarentzako habitata osatzen duten berezko elementuak zaindu eta kudeatzea, errespetatu beharreko emari ekologikoa, eta baita kontserbazioa interes bereziakoa den tarte nagusien zerrenda, horietako bakoitzarendako babes erregimen berezia eta guzti.

Iruñean, 1997ko martxoaren 1a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas.

Mozioa, Nafarroako Gobernua Iruñeko Udalarekiko harreman politikoak arindu ditzan premiatzen duena

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernua Iruñeko Udalarekiko harreman politikoak arindu ditzan premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Foru Araubide Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida- Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Foru Araubideko Batzordean eztabaidatzeko:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Gorteen Gobernua premiatzen dute egun Iruñeko Udalarekin dituen harreman politikoak arin ditzan. Horretarako, erakunde izatera duen negoziaketa-mahaia eratzeko harremanei ekingo die, bi erakundeak ere bertan izango direlarik, bi Administrazioak ukitzen dituzten gaiak erabiltzeko, hala nola, Mendillorri, hiriburutza, kableari buruzko legea eta lurzoruari buruzko hitzarmena.

Aipatu mahaiaren emaitzen berri emango die Gobernuak Nafarroako Gorteei.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Bozeramalea: Félix M^a Taberna Monzón

F Saila:
GALDERAK

Anbulantzia zerbitzuaren emateari buruzko galdera

M^a ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak ambulanzia zerbitzuaren emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Rosario Villanueva Iturraldek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Osasunbidea eta Nafarroako Anbulantzien Enpresen Elkartearen negoziatzen ari dira larrialdietako eta ohiko zerbitzua ematea, 1996ko abenduaren 31n bukatu zen itun baten arabera.

1.- Noiz egingo da hurrengo lehiaketarako deia?

2.- Urte beteko epe berari eutsiko al dio hurrengo lehiaketak?

3.- Anbulantzien zerbitzua arautzen duen Foru Dekretua eskakizun berberekin ezarri al zaie enpresa guztiei?

4.- Nola daude Osasunbidearen eta ambulanzien enpresen arteko negoziaketak?

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: M^a Rosario Villanueva Iturralde

Tuterako Soto de la Mejanan zentral hidroelektriko bat kokatzeari buruzko galdera

M^a ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Tuterako Soto de la Mejanan zentral hidroelektriko bat kokatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Rosario Villanueva Iturraldek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

"Energía Hidroeléctrica de Navarra" enpresak energia hidroelektrikoa sortzeko zentrala jarri nahi du Tuterako Soto de la Mejanan. Nafarroako Gobernuak Lekune Natural deklaratu zuen alde hori.

Gobernuak hurrengoei buruz dituen aburu eta irizpideak jakin nahi dira:

1.- Nafarroako Gobernuak bermatu al dezake zentrala lekune natural batean jartzeak Erriberan geratzen diren ibarbaso urrien azaleraren garrantziko atzerakada ekarriko ez duela?

2.- Lekune naturaletan eraikuntza-jarduketa

debekatuta baldin badago, bidezko al da zentrala eraikitzeke proiektuak aurrera egitea?

3.- Gobernuak asmorik al du gune babestua birkalifikatzeko, zentrala eraiki ahal izateko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 24a

Foru Parlamentaria: M^a Rosario Villanueva Iturralde

Bazterturiko pertsonak gizarteratzeko proiektuetatik etorritako erabiltzaileendako arretari buruzko galdera

REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak bazterturiko pertsonak gizarteratzeko proiektuetatik etorritako erabiltzaileendako arretari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Reyes Cortaire Tirapuk, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joandako egunetan, pertsona behartsuei laguntza ematen dieten erakunde batzuek, jendaurrean adierazi dute Foru Administrazioak halako hutsune batzuk badituela. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du Nafarroako osasun publikoan izapideak arintzea, bazterturiko pertsonak gizarteratzeko proiektuetatik datozen erabiltzaileei arreta egiteko?

2.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du aipatu pertsonen osasun txartelak ematea, gizarteratze programen ardura duten erakundeekin eraketa egin ondoren?

3.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du laguntza ematea bazterturiko pertsonen birgizarteratze programetako kontratazioa erabiltzen duten enpresei?

4.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du bergizarteratze programetan dauden pertsona baztertuak, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko laguntzak ematea?

5.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du eskuarki bazterturik eta kalean bizi diren adimengaisoen ospitale-zaintza?

6.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du bazterturik, familia babesik ezean eta zaharretxetara iritsi ezinik dabilzan zaharrak zaharretxetan hartzea?

Iruñean, 1997ko otsailaren 28a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

Corellako eta Zizur Nagusiko udalerriei buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Corellako eta Zizur Nagusiko udalerriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulok, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Fondoa banatzeko orduan eraginkortasuna eta zuzentasuna nolakoa den jakiteko, eta erkaketa egiteko asmoz, hurrengo datuak jakin nahi dira:

1.- Corella eta Zizur Nagusiko udalek azken bi hirurteko planetan jasotako kopuru erkatua.

2.- Corella eta Zizur Nagusiko udalen zuzenbideko eta egitezko biztanle-kopurua.

3.- Azken zortzi urteotan emandako lizentzia kopurua, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke.

4.- Corella eta Zizur Nagusiko udaletako udal eraikinen (Udaleko bulegoen) azalera metro koa drotan, biztanleekiko proportzioan.

5.- Corella eta Zizur Nagusiko udalen zorpezearen kopurua.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Iruñerriko hiri garraio publikoaren ezarpenari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Iruñerriko hiri garraio publikoaren ezarpenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulok, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari

atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urteak eman dituzte Iruñerriko Hiri Garraio Publikoa ezartzeko lege proiektua eta proiektu teknikoa lantzen.

Hainbatetan hitz egin da hura ezartzeaz, beharrezkotzat jotzen delako. Iruñerriko hainbat alkate eta Iruñeko aurreko alkatea ere hala mintzatu dira

Hori horrela, Nafarroako Gobernuak gai honen inguruan dituen aurreikuspenak jakin nahi dira

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Hitzarmen Ekonomikoaren balizko eguneratzeari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Hitzarmen Ekonomikoaren balizko eguneratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Arangurenek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den otsailaren 17an, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak elkarrizketa izan zuen Aznar Gobernuko Presidente jaunarekin eta Nafarroarendako interesa duten hainbat gai azaldu zizkion. Otsailaren 17an berean, Nafarroako Gobernuko Lehendakari jaunak aitortu zuen lehentasuna eman behar ziola egungo Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzeko negoziaketari.

Horren ondoren, Gobernuko Lehendakariak esan omen zuen ez dagoela presarik Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomiko berriaren negoziaketa bukatzeko, azken hitz horiek kontraesanean daudelarik lehenengoekin. Era berean esan zuen Aznar Presidenteari eskatu ziola "Nafarroaren zerga-eskubideekiko tolerantzia eta ulermena, aipatu gaiak Komunitatearen interesak ukitu ez ditzan". Hori horrela jakin nahi da:

1.- Zer arrazoi dago Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Hitzarmen Ekonomikoaren lehentasuna berretsi eta handik egun gutxira aztertzeko presarik ez dagoela adierazteko?

2.- Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eguneratzeari buru ematea?

3.- Nafarroako Gobernuak lehentasuna ematen al dio Hitzarmen Ekonomikoa berritzeari, batez ere Nafarroako esportazioen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doiketari dagokionez?

4.- Estatuarekin negoziatzen ari diren BEZaren doiketek Nafarroaren zerga-eskubideak uki ditzakete?

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Lurzorua eskuratzeko sozietate misto baten osatzeari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak lurzorua eskuratzeko sozietate misto baten osatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Dirudienez, etxebizitzaren plan berriak sozietate mistoa sortzea proposatu du lurzorua eskuratzeko, aurreko Gobernuaren irizpidearen kontra, izan ere, erakunde autonomo publikoa bultzatu

nahi zuen lurzorua kudeatzeko. Etxebizitza Kontseilariaren agerraldian azaldu zenez, sustatzaile pribatuei nolabaiteko partaidetza emango zaie, Administrazioak duena baino ahalmen ekonomiko handiagoa lortzeko asmoz. Hori horrela, hurrengoak jakin nahi dira lurzoru-sustapenean partaidetza emango zaien sustatzaile pribatuei buruz:

- 1.- Zer sustatzaile dira?
- 2.- Nola hartuko dute parte sozietate mistoan?
- 3.- Noiz sartuko dira aipatu sozietatean?
- 4.- Zer prozedura erabiliko da sartzeko?

5.- Zenbat kapitalekin sartuko dira?

6.- Administrazioak gaitasun ekonomikorik ez baldin badu sozietatea bideragarri izateko partaidetza publiko soilarekin, Administrazioak baliabiderik ez duelako al da, edota ekarpen pribatua izateko behar hutsagatik?

7.- Zer irizpide du Kontseilariak lurzoru eta etxebizitza politikaz? Ekinbide pribatuaren esku utzi ala esku publikoetan izan behar du?

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Estatuan 200.000 lanpostu sortzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Estatuan 200.000 lanpostu sortzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Estatuko Gobernuak Lehendakariordeak 200.000 lanpostu sortuko direla iragarri omen du.

PP oinarri duen Estatuko Exekutiboak gobernu-ekintzak zorrotz eta zehatz-mehatz planifikatzen dituela gauza jakina denez, uste izatekoa da azterlan eta proiektu sakonek eutsiko diotela baieztapen horri. Azterlanok garrantzizko eragina izango dute lan-merkatuan eta Maastricht-ek eredututako bategite-konpromezuak betetzera hurbiltzeko ekonomi eta aurrekontu neurrietan.

Egiazki eta segurki, Nafarroako Gobernuak aipatu azterlan eta proiektuen berri zehatz-mehatza izango du, eta gure Foru Komunitateari buruzko datuen jakinaren gainean izango da. Hori horrela:

1.- Nafarroako Gobernuak Parlamentari Taldeei bidal diezaiela lanpostuak sortzeko azterlanetik, Nafarroari dagokion zatia.

2.- 200.000 lanpostuetarik zenbat sortuko dira Nafarroan?

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Etxebizitza Planaren aurkezpenari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Etxebizitza Planaren aurkezpenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak ez du orain arte Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren hainbat jarduketa izapidatzeko hartu zuen konpromezua bete. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Noiz aurkeztuko zaio Parlamentuari Etxebizitza Plana?

2.- Zein izango da 1997rako lurzoru-eskaintza? Zehatz bitez lurzoru-eskaintzari buruz aurreikusi den programazio osoa, lurzoru-erabilgarritasunaren azterlanak eta 1997rako lurzoru-aurreikuspena.

Iruñean, 1997ko otsailaren 28a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin zerikusia duten zenbait espedienteren aurkezpenari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak XXI buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro Departamentuan birmoldaketa gertatu da Zuzendaritza Nagusian ardurarik handiena zuten funtzionarioen artean. Horren ondorioz, badirudi hainbat espediente atzeratzen ari dela. Beraz, jakin nahi da:

1.- Landarediaren katalogoa aurkezteko egutegia.

2.- Lekune naturalen bazter eremuen delimitazioa aurkezteko egutegia.

3.- Abelbideei buruzko Dekretua aurkezteko egutegia.

4.- Estepako hegaztiak babesteko barrutiei buruzko Dekretua aurkezteko egutegia.

5.- Hondakinen Plana aurkezteko egutegia.

Iruñean, 1997ko otsailaren 28a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruzko galdera

GREGORIO MARTINEZ EZCARAY FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Gregorio Martínez Ezcarayk, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Liburutegi Nagusia berrantolatzen ari da barneko tokia, materialak eta liburuak kontsultatzeko postu gehiago sartzeko. Liburutegi horrek, fondoak kontsultatu eta azterketak prestazera doazen ikasleak hartu izan ohi ditu. Liburutegi Nagusiarendako egoitza berriaren proiektua iristear dagoenez, jakin nahi da:

1.- Liburutegi Nagusiko Zuzendaritzak, liburutegia orain arte bezala erabiltzen utziko al die ikasleei, ala murriztu egingo du erabiltzaile horien kopurua?

2.- Non jarri nahi du Nafarroako Gobernuak Liburutegi Nagusiaren egoitza berria?

3.- Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak egoitza berriaren proiektua hastea?

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: Gregorio Martínez Ezcaray

Osasuna Babesteko Atalburuak kutsaduraren kontrolari buruz egindako ikerketari buruzko galdera

GREGORIO MARTINEZ EZCARAY FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Osasuna Babesteko Atalburuak kutsaduraren kontrolari buruz egindako ikerketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko kidea den Gregorio Martínez

Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babespean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Osasun Publikoaren Institutuko Osasuna Zaintzeko Ataleko Buruak Nafarroako kutsaduren kontrolari buruzko azterketa eman du jakitera. Horregatik jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak azterketa horren informazio osoa bidal dezan, eta aipatzen dituen beste Komunitateekiko azterketa alderagarriak

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Foru Parlamentaria: Gregorio Martínez Ezcaray

“Korrika 97”ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak “Korrika 97”ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Inmaculada Matías

Angulo Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Laster izango delarik euskararen irakaskuntzaren aldeko kultur adierazpen bat, tradiziozkoa bihurtzen ari dena Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomi Erkidegoan, Korrika, hain zuzen ere, honako hau jakin nahi da:

1.- Zer dirulaguntza emango die Nafarroako Gobernuak 1997ko Korrikaren antolatzaileei?

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Estatuko aurrekontu-kontusailei eta Itoizko Urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin hartutako konpromezuei buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Estatuko aurrekontu-kontusailei eta Itoizko Urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin hartutako konpromezuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok

ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Azken egunotan Itoizko urtegiari buruz eta Nafarroako ubideari buruz hainbat informazio ageri da komunikabideetan, batzuetan elkarren aurkakoak. Horregatik jakin nahi da:

1.- Ezer aurrekontu-kontusail dauzka Estatuak, eta zenbat jotzen dute, Itoizko urtegiarekin eta Nafarroako ubideaz hartu dituzten konpromezuak betetzeko?

2.- Zer urrats egin ditu Estatuko Gobernuak, arauzkoak eta politikoak, aipatu proiektuari lege-babesa emango dion lege-aldaketa egiteko?

3.- Estatuak aurrera daraman ureztalurren politikaren barruan, Nafarroako ubideak ureztatuko dituen lurraldeak Ureztalurren Planaren barruan al daude? Baiezkoan, zeintzuk dira lurralde horiek?

Iruñean, 1997ko otsailaren 28a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Lindux aldeko ehiztarien arteko istiluei buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Lindux aldeko ehiztarien arteko istiluei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

“Quercus” aldizkarian, 127 zk.ko alean, Aurizko alkateak dio Linduxeko aterbea, hegazti migratzaileak behatzeko balio zuena, kontrolik gabeko ehiztariak erre dutela, Gurelur taldeak sortu duen elkarren arteko istilu eta narritadura giroa dela medio. Gurelur-eko lehendakariak ezeztatu du hau hemengo prentsan. Horregatik jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki istilu eta enegatze giroa badagoela Lindux aldeko ehiztarien eta hegazti migratzaileen pasatzea behatzen duten pertsonen artean?

2.- Nafarroako Gobernuak zaintzen eta kontrolatzen al du alde hori, ingurugiroaren aldetik?

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Urederra, Irati, Anduña, Urrobi eta Aragoa ibaietako zenbait tartetako uraren kalitateari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Urederra, Irati, Anduña, Urrobi eta Aragoa ibaietako zenbait tartetako uraren kalitateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok

ek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak bainatzeko debekua ezarri du Urederra, Irati, Anduña, Urrobi eta Aragoa ibaietako zazpi tartetan, hain zuzen ere urak, tarte horietan, behar duen kalitate-maila harrapatzen ez duen artean. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zer arrazoik ekarri du erabaki hau?

2.- Tarte horiei buruz txostenik egin al da?

3.- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak urak gutxieneko kalitate-maila izan dezan?

4.- Ba al da eperik tarte horietan berriro baintu ahal izateko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Leipzig-eko Azokan Foru Komunitatearen pabilioiak izandako kostuari buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Leipzig-eko Azokan Foru Komunitatearen pabilioiak izandako kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Leipzig-eko Azoka egiten ari da, eta Nafarroako Foru Komunitatea bertan parte hartzen ari da han paratu den pabilioi baten bidez. Horregatik jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak Leipzig-en paratu duen Foru Komunitatearen pabilioiarengatik

ordaindu beharko dituen kostu guztiak, honako ordainketa hauek aintzat hartuz: Azokaren antolatzailerei ordaindu zaiena, pabilioia eraiki, mantendu eta kentzeko gastuak, Azokan ordezkari gisa daudenek sorraraziriko gastuak.

2.- Pabilioi horrek duen bisitarien kopurua, egunez egun zein egun guztiak batera kontuan harturik, bisitari arruntak, erakunde ekonomikoen ordezkari datozen bisitariak edo erakunde publikoen ordezkari datozen bisitariak ote diren zehaztuz.

3.- Pabilioian kokatu diren enpresak.

4.- Azokaren bidez egin diren harremanen berri, Nafarroako Gobernuaren edo pabilioian dauden enpresen eta Europako beste hainbat enpresaren edo herrialderen artean.

5.- Nafarroako enpresen eta beste hainbat enpresaren artean hitzarmenik edo salerosketarik izan den jakiten ote den.

6.- Europako Batasuneko zenbat Estatu eta Eskualde gonbidatu diren Azokara eta horietatik benetan zenbatek hartu ote duten parte jakiten ote den.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

Nafarroako Hiri Jabetzako Ganbararen kenketari buruzko galdera

PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Hiri Jabetzako Ganbararen kenketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

1.- 1997ko otsailaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean apirilaren 15eko 178/1996 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horrek Nafarroako Hiri

Jabetzako Ganbara deuseztatzen du, eta bere ondasuna zein langileen erregimen eta norabideari buruzko neurriak hartzen ditu. Horregatik jakin nahi da:

- Zergatik izan den 10 hilabeteko atzerapena Foru Dekretua onartu zenetik argitaratu den arte; Jabetzako Ganbarako Lehendakariaren eta Lehendakaritza Kontseilariaren artean izan diren negoziazioen edukia adieraz dadila, lehenak egin dituen eskaintzak zehaztuz.

2.- Dekretu horretako Lehen Xedapen Iragankorrek azaltzen du Nafarroako Hiri Jabetzako Ganbarako gobernu-organoak erakundearen ondasunak eta eskubideak Foru Komunitateko Administrazioaren alde inskribitzen, titulatzin edo sartzin diren unean desegingo direla. Horregatik jakin nahi da:

- Nafarroako Gobernuak Ganbarako gobernu-organoak desegiteko eta aipatu erakunde horren ondasunak eta eskubideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitzeko ezarri duen egutegia.

3.- Behin Jabetzako Ganbara deseginik, orain arte erabili izan dituen lokalak hutsik geldituko dira. Horregatik jakin nahi da:

- Nafarroako Gobernuak lokal horiei eman gogo dien erabilera; Ondasun Higiezinaren Planaren aurreikusten dena zainduko ote den eta horren arabera Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, zehatz esanda Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiari atxikiko ote zaizkion.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz

UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetzahitzarmenari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetzahitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengo-

ek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Gobernuak lankidetzahitzarmen bat onartu du UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea), euskararen normalkuntza bultzatzeko. Lehentasunezko helburua lexiko arrunta zein terminologia euskaraz aztertzea eta finkatzea omen da. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zeintzuk dira, zehatz esanda, Nafarroako Gobernuak hartu dituen konpromezuak eta horien trukean UZEIk eskainiko duena?

2.- Zenbat balio dute azterketek eta nondik aterako da horiek finantzatzeko dirua?

3.- Nafarroako Gobernuak eta UZEIk adostu duten testua aurkeztea eskatzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Lurraldearen antolamenduaz egindako ekimen eta jarduketei buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak lurraldearen antolamenduaz egindako ekimen eta jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Inbestidura mintzaldian Miguel Sanz Sesma jaunak, 18. orrialdean, honako hau esan zuen

hitzez hitz: “Ondorio horretarako Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak onartuko dira, lurraldearen gainean egiten diren jarduera publiko eta pribatu guztiak orokortu eta koordinatuko dituztenak”

Dirudienez, mintzaldiaren asmoaren arabera, Foru Lurraldea Antolatzekeo Jarraibideak eman nahi zitzaizkion Nafarroari, bertako eskualdeen artean dauden ezberdintasunak orekatu ahal izateko, baita tokian tokiko ekimenak eta ekimen partikularrak bultzatzea ere.

. Jakin nahi da Nafarroako Gobernuak zer ekimen edo jarduketa hartu dituen inbestidura mintzaldiaren ondorioz sortzen den konpromezua betetzeko.

. Gobernuak pentsatu ote duen irizpideak zeintzuk izango diren, baita konpromezua betetzeko epea zein izango den ere.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Iruñerriko Hirigintza Arauen prestakuntza bertan behera uzteari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Iruñerriko Hirigintza Arauen prestakuntza bertan behera uzteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

gelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Berriki prentsak argitaratu du Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi duela Eskualdeko Hirigintza Arauen prestakuntza.

1. Jakin nahi da Nafarroako Gobernuak Iruñerriko Hirigintza Arauen prestakuntza bertan behera uztea erabaki ote duen.

2. Aurrekoaren erantzuna ezetza baldin bada, zer epetan pentsatzen duen indarrean jartzea; adieraz bedi burutzeko epeak, jendaurreko zabaltearen tramitea eta behin betiko onartzeko aurreikusten diren epeak.

3. Lehengo galderaren erantzuna baiezkoa bada, zer pentsau duen Nafarroako Gobernuak

planifikazio faltaren ondoriozko arazoei irtenbidea emateko, eta Eskualdeko arau horiek ez direla beharrezkoak pentsatzen ote duen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Ehiza hesi eta itxituren kenketari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ehiza hesi eta itxituren kenketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Naturgune buruzko Foru Legea onartzearekin, eta bere Bosgarren Xedapen Gehigarriaren bidez, Nafarroan debekatzen ziren ehiza itxitura eta hesiak. gainera, arautegitik kanpoko-

tzat jotzen ziren, hirigintzari buruzko legeen ondorioetarako, une hartan zeudenak, sei hilabeteko epea ematen zelarik Kontseilariak une hartan zeuden eta legearekin zein martxoaren 5eko basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legeko 37. artikulua araberan onartu ziren baldintzekin bat ez zetozen hesiak kentzeko beharrezkoak ziren jarduketak egin zitzaizkion.

Horregatik jakin nahi da:

1. Zer jarduketa garatu ditu Nafarroako Gobernuak horri buruz, Naturgune buruzko Legeko Bosgarren Xedapen Gehigarria bete dadin?

2. Zein da horri buruzko arautegia betetzen ez zuten ehiza hesien egoera une hauetan?

3. Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, eta zer epetan, epetik kanpo izanik ere, Nafarroako Naturgune buruzko Foru Legeak ezartzen duena bete ahal izateko?

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

D.B.H.ko D ereduko irakasgai amankomunak astean ordu batez gutxitzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak D.B.H.ko D ereduko irakasgai amankomunak astean ordu batez gutxitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

D ereduko D.B.H.ko ikasturte guztietan astean ordubete gutxiago ematen da irakasgai amankomunetan, ondoren azaltzen dugunaren arabera:

* Gaztelania Hizkuntza eta Literatura-
Musika-Teknologia -1. eta 2. ikasturteak

* Gaztelania Hizkuntza eta Literatura-
Matematika-Natur Zientziak -3. ikasturtea

* Gaztelania Hizkuntza eta Literatura-
Etika-Matematikak- 4. ikasturtea

Zergatik kentzen dio ordu bat Hizkuntza eta Literaturari ikasturte guztietan, matematikari bi ikasturtetan, eta inongo ikasturtean ez du kontsideratzen erlijioari ordubete kentzea, DBHko 4. ikasturtean etikari kendu dion bezala?

APYMAS direlakoek, irakasleek, ikastetxeetako Eskola Kontseiluek eta hezkuntzan parte hartzen duten beste hainbat eragilek honi buruz duten iritzia jaso al da?

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruzko galdera

REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Reyes Cortaire Tirapuk, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamen-

duko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroan adingabekoak eta gazteak etxeetan hartzen dituzten elkarteetako bat dugu “Asociación Mensajeros de la Paz” delakoa eta gauza jakina da oso ondo ari direla arlo horretan. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Zenbat dirulaguntza jaso ditu “Asociación Mensajeros de la Paz” delakoak gaur egunera arte eta zer kontzepturengatik?

2.- Aipatu elkarteak programarik edo eskaririk aurkeztu al du, gaur egun erabakitzeko dagoenik?

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

Eremu Hezeen inbentarioari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Eremu Hezeen inbentarioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Biosferako ekosistemarik emankorrenetakoak dira eremu hezeak, eta aniztasun eta konplexutasun handiko landare eta fauna komunitateak sostengatzen dituzte.

Zaintzeko garrantzirik handiena duten eremu hezeak identifikatzeko asmoz, hainbat balio natural dituztelako, eta babesteko neurririk egokienak ezartzeko, 1997ko urtarrilaren 13an, Ingurugiro. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 4/1997 Foru Dekretua eman zuen argitara, Nafarroako naturaguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko lehen xedapen gehigarria garatzeko, eta Nafarroako eremu hezeen inbentarioa sortu.

Inbentarioaren barruan hasieran sartzen diren eremu hezeak ditugu: Pitillasko aintzira, Las Cañas edo El Salobreko urtegia, El Juncaleko aintzira, Agua Saladako idoia, El Pulguerko idoia, Dos Reinosko aintzira, Badina de la Escudera, El Cardeteko idoia, Lotza eta Itzako idoiak, La Muedako idoia, Agua Dulce edo La Estanquillako urtegia, Lorreko aintzira, Arradako aintzira, Zilegietako idoia, Corellako La Estancako urtegia, La Estanquillako urtegia, Nabako urtegia, Sasiko idoiak, Moreako idoia, Cortinasko idoia, Zapatako idoia, Bojabongo idoia. Cintruenigoko La Estancako idoia.

Aipatu Foru Dekretuko sarrerak halaxe dio, besteak beste: "Lehenik eta behin, Inbentarioan sartu dira ur-hegaztiek habia egin edo negua iragateko erabiltzen dituzten aintzira, urtegi eta labore heze-

ak, hori guztia Nafarroan dauden zentsuen arabera. Oraindik orain ez dira sartu hegaztien presentzia antzemandako ibaien urgeldiak, izan ere inguru horiek ibaiaren zati baitira; halarik ere, behin astiroago aztertu ondoren, egunen batean Inbentarioan sartzen ahal dira. Halaber, etortzeko diren urteetan erreka inguruak, belagai urtsuak, inguru gazituak eta zohikaztegiak sar daitezke Inbentarioan, intereseko balio ekologikoak badituzte".

Euskadiko, Nafarroako eta Akitaniako eremu hezei buruzko oraintsuko argitalpen batek bi atal nagusitan banatzen ditu eremu hezeak: berezko eremu hezeak eta eremu heze artifizialak. Hurrengoak azpimarratu ditu lehenengo barruan: Atxuria, Belate, Zuriain eta Mendaurko zohikaztegiak, eta baita Irubetakaskoko haltzadia ere eta gure Komunitate osoan zehar barreiatuak 26 ibarbaraso.

Dokumentatuta dago, beraz, ingurugiro balio garrantzizkoak dituzten eremu hezeetako ekosistemak direla, Nafarroako eremu hezeen inbentariotik at geratu direnak. Horren konpromezua eta ahalegina eskatzen ditu horiek definitu eta inbentarioan sartzeko, gero.

Horri gagozkiolarik, hurrengo galderari erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu inbentarioan beste eremu hezerik sartzeari Zeintzuk lirake eremu heze horiek?

2.- Zer irizpide orokor erabiliko ditu inbentarioan beste eremu heze batzuk sartzeko?

3.- Zer zehaztasun ditu eremu horietako bakoitzak? Zer azalera hartzen du bakoitzak? Noizko aurreikusten da horietako bakoitza inbentarioan sartzeari?

4.- Urtarrilaren 13ko 4/1997 Foru Dekretuak ez dakarren eremurik proposatu al da Ingurugiro Kontseiluan edota inbentarioa jendaurrean erakutsi denean?

5.- Aurreko galderan aipatu direnetakoren bat inbentarioratzea onartu al da? Zeintzuk?

6.- Aztertzen ari al dira Ingurugiro Kontseiluak edota jendaurreko erakusketan proposaturiko eremuren bat sartzeari, gerora? Zeintzuk?

Iruñean, 1997ko martxoaren 1a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako abelbideen babes erregimenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako abelbideen babes erregimenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen aurrean agertu zen 1996ko urriaren 23an eta beren beregi adierazi zuen historia edo ingurugiroaren aldetik gehien balio duten bideak, abelbideak, besteak beste, zaindu eta bizkortzea bultzatzeko borondatea.

Uztailaren 26ko 768/1996 Foru Aginduan ezarri da Nafarroako azienda bideak babesteko araubidea. 1996ko irailaren 30a arte paratu zen jendaurrean. Jendaurrean jartzeko epea bukatu eta bost hilabete igaro dira Nafarroako Gobernuak azienda bideak babesteko araubidea onartu gabe.

Hori dela eta, hurrengoak erantzutea nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Dekretua onesteko asmorik al du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak Legebiltzarreko agerraldian azaldu bezala?

2.- Noizko aurreikusitako du Nafarroako Gobernuak aipatzen ari garen Foru Dekretua onestea?

3.- Zenbat eta zer alegazio aurkeztu dira jendaurreko erakustaldian?

Zein izan da horietako bakoitzaren edukia? Horien laburpena eskatzen da.

4.- Alegaziorik izan bada, erantzuna eman al die Nafarroako Gobernuak alegaziorik? Zein izan da alegazio bakoitzaren erantzuna? Horien laburpena eskatzen da.

5.- Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluari helarazi al zaio Foru Dekretua, hark txostena eman dezan? Zer irizpen eman du aipatu Kontseiluak horri buruz?

6.- Zer aldaketa sartu da jendaurreko erakusketaren ondorioz eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluaren aurreko tramitazioan? Foru Dekretuaren proiektuak izandako aldaketak zehaztea eskatzen da, hasierakoarekin konparatuz.

7.- Zenbat bilera egin ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako Abeldibideen Lagunen Elkartearkin? Aipatu Elkartek iruzkin edo proposamenik egin al du aipatu Foru Dekretua dela eta? Horien laburpena eskatzen da.

8.- Abeldibideen Lagunen Elkartek egin dituen iruzkin etatik zeintzuk onartu dira Foru Dekretuan sartzeko? Ontzat hartu ez denik baldin bada, zergatik ez da aintzat hartu?

9.- Gure Komunitateko azienda bideen sareak, zer luzera du, guztira? Nafarroako azienda bideen sareko zenbat kilometro hartzen ditu aipatu Foru Dekretuak?

Iruñean, 1997ko martxoaren 1a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzekeo zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tuan ezarrikoaren babesean, eta Nafarroako Parlamentuak Teknikarien Kidegoari dagokionez dauzkan beharizanak betetzeko,

ERABAKI DA:

Lehena. Teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzekeo zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzekeo zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

1. Oinarria. 1. Teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzekeo zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako dei egiten da. Zerrenda horrek 1997-1999 urteetan behar diren aldi baterako kontratazioak egiteko balioko du.

2. Parlamentuak zerrenda hori darabilenean, Biltzarraren eta hautatzen diren pertsonen arteko harremana aldi baterako administrazio kontratuen bidez burutuko da, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuko 4.2 artikuluan ezarrikoarekin bat. Kontratatuak Nafarroako Par-

lamentuko Langileen Estatutuko 8.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antomenduari buruzko Erregelamenduko 20.2 artikuluan aipatzen diren eginkizunak izanen dituzte.

3. Zerbitzuen prestazioaren erregimena Biltzarreko teknikariendako, euskara itzultzaileendako, ezarriko izanen da.

2. Oinarria. Hauta-probetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da betebeharrak hauek betetzea:

a) Espainiako hiritartasuna izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Lizenziatu, injineru edo arkitekto unibertsitate-tituluaren jabe izatea.

d) Ofizialki onetsitako euskara-titulu ofiziala izatea (EGA, Hizkuntza Eskola Ofizialekoa edo Euskaltzaindikoa).

e) Bere eginkizunetan jarduteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Funtzio publikoetan jarduteko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

3. Oinarria. 1. Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzekeo eskaerak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari andreaki igorri behar zaizkio eta, eskabide gisa, erantsitako eredu ofizialari jarraiki, Parlamentuko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, lanegunetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte, Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun naturaleko epearen barrenean.

2. Hautagaiek izen-deiturak, adina, helbidea, jakinarazpen ondorioetarako, eta telefonoa, hala bada, azalduko dituzte, baita bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela ere, beti ere eskabideak aurkeztekeo ezarriko epea bukatzen den egunean, eta, kontraturik

gertatzekotan, eskaturiko betebeharrak dituztela frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko lituzketela.

3. Halaber, eskabidearekin batean, alegaturiko merezimenduen zerrenda eta horiek frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira, Deialdi honetako 6. Oinarrian ezarrikoarekin bat sailkatuak.

4. Oinarria. 1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean ikusgai jarriko dena. Zerrenda horretan onaturiko hautagaien izen-deiturak agertuko dira.

2. Interesatuak, bi laneguneko epearen barnean, egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka.

3. Erreklamazioetarako epea bukatuta eta, hala bada, horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean ikusgai jarriko dena.

5. Oinarria. 1. Hona hemen hauta-probak zuzenduko dituen Epaimahaiko kideak:

– Mahaiburua: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Idazkaria.

– Ordezkoa: M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordea.

– Mahaikidea: José María Satrustegi Zubeldia jauna, Euskaltzaindiako kidea.

– Ordezkoa: Andrés Iñigo Ariztegi jauna, Euskaltzaindiako kidea.

– Mahaikidea: Ion Alonso Fourcade jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea.

– Ordezkoa: Alberto Amorrortu Amarica jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea.

– Mahaikidea: Ion Echegaray Agara, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

– Ordezkoa: Mikel Taberna Irazoqui jauna, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

– Mahaikidea: Xabier Zabaltza Pérez-Nievas jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea, Epaimahaiko Idazkari lanetan arituko dena.

– Ordezkoa: Xabier Olarra Lizaso jauna, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

2. Epaimahaia 1997ko apirilean osatuko da. Epaimahaiak ez du osatzerik izanen, ez eta jarduerik ere, bertan haren kideen gehiengo osoa ez badago.

3. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdi oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor litezkeen afera guztiak.

4. Mahaikideek abstenitzeko beharra dute eta Mahaiari jakinarazi beharko diote, Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikuluan aurreikusitako gora-beherak gertatzen direnean.

6. Oinarria. Lehiaketaldian, alegaturiko merezimenduak honela sailkatu eta puntuatuko dira:

A) Ikasketa merezimenduak.

Euskal Filologiako Lizentziatura: 2 puntu.

Lizentziatura gradua: 0,50 puntu.

Doktore gradua: puntu 1.

Doktoretzan izandako sari berezia edo ohorezkoa: 0,50 puntu.

Doktoretzako ikastaro monografikoetan izandako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko: 0,10 puntu.

Bestelako lizentziaturak: puntu bana.

B) Parlamentu Erakundeetan edo Administrazio Publikoan emaniko zerbitzuak.

1. Parlamentu Erakundeetan eta Administrazioan, Euskara Itzultzaile lanpostuan, eman edo aitorturiko zerbitzuak baloratuko dira, lanpostu horretarako ofizialki onetsitako euskara-titulua (EGA, Hizkuntza Eskola Ofizialekoa edo Euskaltzaindikoa) eskatu bada. Urteko puntu 1 emanen da.

2. Parlamentu Erakundeetan eta Administrazio Publikoetan eman edo aitorturiko zerbitzuak, lizentziatu, injineru edo arkitekto titulua eskatzen duen lanpostuan, batean emaniko zerbitzuak ezin kontutan hartuko direlarik. Urteko 0,5 puntu emanen da.

C) Lanbide curriculumak:

Atal honetan hautagaien lanbide historiala baloratuko da: lanpostuak eta buruturiko jarduerak.

Epaimahaiak lanbide historiala neurtuko du eta bereziki kontutan hartuko ditu beteriko lanpostuen kategoria eta garrantzia, haietan sartzeko zailtasuna eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak eta haren Langileen Estatutuak euskara

itzultzaileak diren teknikariei esleitzen dizkieten eginkizun berak edo antzekoak benetan betetzea.

Hautagaiek bere lanbide curriculuma aurkeztu beharko dute, oposizio-lehiaketan onartua izateko eskabidearekin batera.

D) Bestelako merezimenduak:

Atal honetan argitarapenak, emaniko ponentzia eta hitzaldiak, hizkuntzak, hobekuntza ikastaroak, eta beste edozein merezimendu baloratuko dira, hautagaiek azaldu eta frogatu badituzte eta Epaimahaiak kalifikatzea egoki baderitze.

Lehiaketaldiko kalifikazioa hautagai bakoitzari Otik 20 puntu bitarteko puntuazioa emanez eginen da, epigrafe bakoitzerako honako puntuazio baremo honen arabera:

- A) 5 puntu, gehienez ere.
- B) 5 puntu, gehienez ere.
- C) 5 puntu, gehienez ere.
- D) 5 puntu, gehienez ere.

7. Oinarria. 1. Lehiaketaldia bukatu eta gero, Epaimahaiak egindako balorazioaren emaitza Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean jendaurrean paratuko du, hautagai bakoitzak lortu duen puntuazioaren berri emanez. Halaber, eta gutxienez ere hiru laneguneko aurrerapenarekin, oposizioaldiko probak zer egunetan egingo diren jakinaraziko da. Hautagaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute proba horretara.

2. Oposizioaldiko probak ariketa hauek osatuko dituzte:

1. Lehenengo ariketa bi proba praktikok osatuko dute. Batean, Epaimahaiak emanen dituen bi testu, bata literarioa eta bestea juridiko-politiko, itzuli beharko dira euskaratik gaztelaniara. Bestean, Epaimahaiak emanen dituen bi testu, bata literarioa eta bestea juridiko-politiko, itzuli beharko dira gaztelaniatik euskarara.

Ariketa praktiko hori egiteko hautagaiek gehienez ere hiru ordu izango dituzte, eta hiztegia erabiltzen ahalko dute.

2. Bigarren ariketa proba praktikoa izango da. Parlamentuan euskaraz egindako hizketaldi batenaldi bereko itzulpena izango da, gaztelaniara.

3. Oposizioaldia honela kalifikatuko da:

1. Lehen ariketa praktikoa: 25 puntu, gehienez ere (12,5 puntu proba bakoitzeko).

2. Bigarren ariketa praktikoa: 25 puntu.

Oposizioaldiko ariketetako bakoitza kanporagarria izango da, ariketa bakoitzean gutxienez ere hamar puntu lortzen ez dituzten hautagaiek baztertuta geldituko direlarik.

8. Oinarria. 1. Ariketak burutzeko plika itxien sistema erabiliko da. Plikak jendaurrean irekiko dira, eta Parlamentuko Iragarri Oholean iragarriko da noiz irekiko diren, ireki baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez ere.

2. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean iragarriko ditu ariketen emaitzak.

9. Oinarria. 1. Merezimenduak baloratu ondoren eta oposizioaldiko probei nota eman eta gero, Epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda egingo du, puntuaziorik gehien dutenengandik hasi eta gutxien dutenenganaino ordenaturik.

2. Epaimahaiak jendaurrean iragarriko du gainditu dutenen zerrenda, berau Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean paratuz.

3. Zerrenda egiterakoan puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, berauek oposizioaldian puntuaziorik gehien atera duen hautagaiaren alde ebartziko dira.

10. Oinarria. 1. Mahaiak, kontrataziorik egin behar badu, gainditu dutenen zerrendako ordenari jarraikiz egingo du. Horretarako, kontrataziorako proposatzen den hautagai gaindituak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Nagusian, kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo hamar egun naturalen barruan, ondorengo agiri hauek:

a) Jaiotze-aktaren egiaztagiria, edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia kautotua.

b) Administrazio Publiko baten zerbitzutik berezia izan ez dela eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

c) Eskaturiko tituluen kopia egiaztatua edo fotokopia (jatorrizkoarekin batera aurkeztu behar dena, kautotua izan dadin) edo eginiko ikasketen ziurtagiri akademikoa edo eta berau eskuratzeko eskubideak ordaindu direlako egiaztagiriak.

d) Halaber, eginkizunak aurrera eramatea galarazten duten gaisotasunik edo akats fisikorik ez izatearen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da, Mahaiak adierazten duen sendagileak edo Erakundeak luzatua.

2. Aurreko ataletan aipatzen diren agiriak ezin daitezkeela aurkeztu behar den bezalako arrazoiez justifikatzen bada, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez egiaztatu ahalko da

deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzen direla.

3. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak tartean ez daudelarik, agiriak aurkezten ez baditu, hautagaia ezin izango da kontratatua izan, hasierako eskaeran egin duen faltasutaserengatik erantzukizuna deustan galarazi gabe. Kasu honetan, kontratazio-proposamena deialdiko 9. Oinarrian aipatzen den zerrendan ondorengo puntuaziorik handiena atera duenaren alde egingo litzateke.

11. Oinarria. Deialdiaren, oinarri hauen eta bere egintzen aurka administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salan bi hilabeteko epean, Biltzarreko Mahaiari jakinarazi eta gero.

I. ERASKINA

_____/ak, ____ urte dituenak, _____
N.A.N. daukanak, helbidea jakinarazpen ondorio-
etarako _____(n), _____ kalendar-
____ zenbakian, ____ pisan, _____ posta kodea
duenak eta _____ telefonoa duenak,

ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiaren berri jakinik (.....ko ... zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik) eta hartan parte hartu nahian, erantsiriko agirian, Hirugarren Oinarrian ezarritakoarekin bat, alegatzen diren merezimen-
duak biltzen dituela, behar bezala antolaturik, baita horiek frogatzen dituzten agiriak eta, haiekin batean, doakion lanbide curriculumare.

Deialdiko bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak biltzen dituela, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

Izendatua bada, konpromezua hartzen duela deialdiko hamargarren Oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, kontratua izenpetzean.

Hori horrela, zuri

ESKATZEN DIZU, izkribu hau aurkeztutzat emanda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan onar dezazula.

Iruñean, 1996koaren(e)an

(Izenpea)

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

"Mahaiak 1996ko urriaren 21ean harturiko Erabakiaz egin zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deia (1996ko urriaren 29ko 56. zk.ko NPAO). Lehiaketa bukatu ondoren, ateratako eta argitara emandako puntuazioak ikusita (1997ko otsailaren 27ko 13. zk.ko NPAO), eta aipatu lekualdatze-lehiaketaren 7.2. puntuarekin bat, ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu betetzeko lekualdatze-lehiaketako postuak hurrengo ematea: Olga Urmeneta Marín andreari, M^a Inés

Moneo Martínez andreari eta M^a Ángeles Adot Loperena andreari.

Bigarrena.- Hurrengo izangaiak Gelazainen Kidegoko funtzionario izendatzea, izen-deiturak eta jaiotze-data paratuz:

Urmeneta Marín, Olga, 1958ko abenduaren 5a
Moneo Martínez, M^a Inés, 1959ko apirilaren 8a
Adot Loperena, M^a Ángeles, 1954ko irailaren 18a

Hirugarrena.- Hauxe ere: interesatuek hamar egutegi-egun izango dituztela lanposturatzeko, izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--